

16. zenb. • 2024ko ekaina



Irakaskuntzako aldizkaria



# Palestina aurrera!





03

EDITORIALA

04

EAE PUBLIKAKO IRAKASLEAK

04

Ikasturtearen balantzea

06

Erljio katolikoa zenbakitan

10

LAN-LEGEPEKO IRAKASLE  
ETA HEZITZAILEAK

10

Lan-legepeko irakasle  
eta hezitzaileon  
hitzarmenak 20 urte!

11

Lan hitzarmenaren kronologia  
txikia (azken 4 urtetakoa)

12

HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

12

Haurreskolak Partzuergoko  
Negoziazioa

14

IRAKASKUNTZA PRIBATUAK

14

Baloiak kanpora!

16

Birkokatze araudia

17

Birkokatze araudia, laburpena

18

UPV/EHU

18

EHU eta Palestinaren aldeko  
adierazpena

20

NAFARROA PUBLIKAKO  
IRAKASLEAK

20

Eskola publikoa ala basakeria

21

LGTBIQ+

21

Nazioarteko egun ponpoxen  
aitzakian, zorroztu ditzagun  
lumak

22

IDAZKARITZA FEMINISTA

22

Martxoak 8. Zaintzak emakume  
aurpegia dauka

24

LAN OSASUNA

24

Lan osasunaren defentsan

25

JENDARTE MUGIMENDUAK

25

Freedom Flotilla Coalition

26

Estatu Batuetako  
unibertsitateetako erresistentziak

28

EILASTASUNA

28

Proiektu berriak

30

HITZ ETA LAPITZ



Legealdia amaitu da eta Hezkuntza Sailaren balorazioa egitea tokatzen zaigu. Asmo onez beterik eta elkarrizketarako prest aurkeztu bazitzaigun ere, sail honek ez dio hobekuntza handirik ekarri gure Hezkuntza Sistemari. Ekarpen nagusia gobernuaren asmoei bidea irekitzen dien Hezkuntza Legea izan da, zeinaren bitartez titulartasun publiko eta pribatuko ikastetxeak berdintzen diren. Lau urte hauetan itundutako ikastetxe pribatuen finantzazioa ikaragarri igo da, 16 milioi gehiago, hain zuzen ere. Horrez gain, ez zaie eskumen bat ere mugatu edo kontrol mekanismorik ezarri; are gehiago, bi urteko gelak itundu dira, ituna jasotzeko ratioa jaitsi eta pribatuko ikaspostuen gaitzeskaintza mantendu egin da, nahiz eta jaiotza-tasak behera egin.

Hezkuntza Legearekin batera, sail honek aspaldi iraungita dauden lan hitzarmenak berritzeko konpromisoa hartu zuen. Baina oraindik, gobernu berria eratzten ari denenean, ez dugu lortu hobekuntzarik ekarriko duen lan hitzarmen bat bera ere sinatzea, sektore bakar batean ere ez.

Irakasleen sektorean atzerapausuak baino ez dizkigute proposatu, esate baterako, ordezkoen zerrenda oposizioen emaitzekin lotzea edo bigarren hezkuntzan 30 orduko presentzialtasuna izatea ikastetxean. Horrez gain, aldebakarreko erabakiak hartu dituzte, hala nola, ordezkoak udaldi osoko kobraketa galdu dute.

Hezkuntza premia bereziko sektorean ez dute meritu lehiaketarik gauzatu, horrek datorren ikasturtean kontratazio asko etetera behartuko baditu ere. Bestetik, kontratazioekin arazoak izan dituztenean hezitzaileak PT irakasleekin ordezkatu dituzte.

Haurreskola Partzuergoa doakoa izan dadin zerbitzua emateko baldintzak okertu dituzte, ordutegiak murriztuz eta familiekiko exigentzia zorrotzuz. Argi dago zerbitzua ez dutela handitu nahi, ezta langile gehiago kontratatu nahi ere, behar diren lanpostu estrukturalak sortzeari uko egiten baitiote behin eta berriro.

EHUko langileek dituzten arazoen artean, ordezko irakasleen egoera jasanezina azpimarratu behar da. Sindikatuok ordezko irakasleen lan-baldintzak hobetzeko egin genituen proposamenak EHUko zuzendaritzak erabat errefusatu zituen eta Hezkuntza Sailak ere ez du bere gain hartu dagokion erantzukizuna.

**STEILAS** sindikatua negoziazioetan erantzukizun eta arduraz arituko da etorkizunean ere. Lanean jarraituko dugu langileon lan-baldintzen defentsan, benetako hobekuntzak lortu arte, gehiengoak bilatuz eta alde desberdinekin adostasunetara iritsi arte. ■


# IKASTURTEAREN BALANTZEA

## IKASTURTE HASIERA

Hezkuntza Sailaren ikastetxe publikoekiko planifikazio falta eta utzikeria politikoa salatu dugu.

Eskola publikoan Araban eta Bizkaian autobus garraioak sortu dituen buruhausteak kudeaketa txarraren izebergaren punta izan dira.

Hezkuntza Sailaren aldebakarreko erabakiak, legeen urraketak, urteko ohiko prozeduren kudeaketa txarra, lurralde ordezkartzen deuseztatzea...



**URRIA** Urriaren 24an **STEILAS**, ELA eta CCOO sindikatuek greba deitu dugu hezkuntza publikoan.


Salatu dugu azken hamalau urteetan ez dela lan baldintzen inguruko negoziaketarik egon Hezkuntza Sailaren menpeko kolektiboetan. Honen arrazoia Hezkuntza Sailaren jarrera itxia eta inposatzailea izan da. Irakasleen kasuan azken Lan Akordioa 2010ekoa da, Sukalde eta Garbiketako langileen kasuan 2009koa da eta Heziketa Berezikoen kasuan 2004koa.

Horregatik, Hezkuntza Sailari hezkuntza publikoko langileen lan baldintzen benetako negoziaketa berreskuratzea eskatu diogu.

Urriaren 25ean ELA, LAB, CCOO, **STEILAS**, SATSE eta ESK sindikatuek, *Zerbitzu publikoak indartzeko, soldatak eta enplegua hemen adostu* lelopean greba deitu dugu.

**AZAROA** Azaroaren 8an eta 20an mahai sektoriala izan dugu, lan akordio berri baten bidean artikulua (1-54 artikulua) lanketa gauzatzeko eta sindikatuen ekarpenak baloratzeko. **STEILAS**ek ekarpen asko egin dizkio Hezkuntza Sailak aurkeztutako akordio proposamenari, baina garrantzitsuenak ez dira bertan jaso. Kontuak hala, mahai negoziatzaileak ez direnez edukiz jantzi, mobilizazioetara jotzea besterik ez zaigu geratu.





**ABENDUA** Abenduaren 18an mahai sektoriala izan genuen. Hezkuntza Sailak bileretara dakarren jarrera aldatzen ari dela ikusten dugun arren, ezin gara etorkizuneko asmoetan eta hitz politetan oinarritu, idatzitako lan baldintzen hobekuntza zehatzak behar ditugu.

Abenduaren 19an ELA, LAB, CCOO, **STEILAS**, SATSE eta ESK sindikatuok beste greba egun batera deitu dugu, Eusko Jaurlaritzari exijitzeko sektore publikoko negoziazio mahaiak aktibatu ditzan.



**MARTXOA** EAeko sektore publikoko bigarren greba egunetik bi hilabete igaro dira martxoan, eta erakundeek eta ordezkari politikoek elkarrizketarako eta akordiorako borondatea adierazi duten arren, sektore publikoko egoera ez da hobetu, kontrakoa baizik: langile publikoen lan baldintzek okerrera egiten jarraitzen dute. Horregatik sektore publikoan berriro mobilizazioak eta martxoaren 12ko greba deitu dugu.

Ikasturte erdian gaudela, eskola batzuetako jantokiko langileek planto egin diote eurenak ez diren funtzioak betetzeari, eta haurren zaintzarako hutsunea agerian geratu da. Arazo hori zuzendaritzen kudeaketaren menpe utzi da eta, kasu batzuetan, irakaslek lanorduetatik kanpo bete behar izan dute arduraren hori. Beste batzuetan, aldiz, egun zehatzetako jantoki zerbitzua bertan behera utzi da, ikasleen kalterako. Irtenbideak ezin ditu langile batzuen zein besteen lan baldintzak urratu, ezinbestekoa da eguneroko beharrei aurre egiteko funtzioak ezartzea eta horretarako pertsonak izendatzea, hots, jantokia eremu hezitzaileadela aitortzea.



**APIRILA** Adinagatiko 1/3 aren murrizketa bai, baina baldintza hauetan EZ!

Hezkuntza Sailak alde bakarrez erabakiak hartu ditu langileen kalterako. Lehen bidegabekeria irakasle interinoekiko egindakoa da da, ez baitaie baimentzen eskaera burutzea. Iaz berdin jokatu zuen administrazioak eta bide judizialera jo genuen; epaileen ebazpenaren zain gaude. Bitartean Arartekoak gurekin bat egin du. Eta hori gutxi ez, lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen sektorean epaileak arrazoi eman digu eta interinoei azken sektore horretan adinagatiko herena murrizteko aukera eman die.

**STEILAS**ek adineko langileen baldintzak izan ditu lehen lerroko aldarrikapen Hezkuntza Sailarekin izandako negoziazioetan.





# Erljio katolikoa zenbakitan

Artikulu honen asmoa ez da erlijio katolikoko langileak apezpikuak izendatzen dituela eta ikasgelan sermoia ematen ari diren bitartean gainontzeko ikasgaietan ere puntuatzen dutela salatzea, ezta bertan ematen dituzten edukiak zientziarekin talka egiten dutela zalantzan jartzea, ezta erlijio katolikoko taldeak osatzeko ikasle bakarria matrikulatua egotea nahikoa dela esatea, gainontzeko ikasgaietan taldea osatzeko 10 ikasle behar direnean. Esfortzu handiegirik egin gabe ia ikasleen %100ak "ikasgaia" gaintzen duela edo kristau ikastetxeek jasotzen duten gainfinantzaketa jomugan jartzea ere ez da artikulu honen asmoa.

Artikulu honen helburua, goian aipatutako pribilegio horiei zenbakiak jartzea da, zenbakiak baitira edozein argumentu indartzen dutenak.

## Matrikula

Nahiz eta erlijio katolikoak dopatuta jokatu, eskola publikoan daraman beherakada geldiezina da. Lehen Hezkuntzan adibidez, sei urtetan, ikasgai honetan matrikulatu diren ikasleen kopurua 2,6 puntu jaitsi eta %11,05 eskas batean geratu da. Ereduetan begiratzen badugu, gainbehera doazen A eta B eredueta matrikularen %30-35 suposatzen du. Hegemonikoa den D eredueta berriz, soilik hamarretik bat matrikulatzen da erlijio katolikoan.

DBHn ere joera antzekoa da, eta 4. mailan %14,07 erlijio katolikoan matrikulatu badira, 1. mailan kopuru hau % 8,82ra jaitsi da, hau da, lau urtetan 5,25 puntu gutxiago. Hemen ere eredueta artean aldea dago.

Batxilergoan, ikasgai honetan matrikulatzen diren ikasleen kopurua hutsaren hurrengoa da, EBAUko notaren batezbesteko balio ez duenetik, eta BATX2n adibidez, %2ra ozta-ozta iristen da.

	A			B			D			Guztira		
	Ikasleak	Katolikoa	%	Ikasleak	Katolikoa	%	Ikasleak	Katolikoa	%	Ikasleak	Katolikoa	%
LH1	88	31	35,23	169	50	29,59	9571	1005	10,50	9828	1086	11,05
LH2	159	56	35,22	192	45	23,44	10667	1237	11,60	11018	1338	12,14
LH3	132	59	44,70	176	51	28,98	10094	1252	12,40	10402	1362	13,09
LH4	153	70	45,75	265	84	31,70	10441	1313	12,58	10859	1467	13,51
LH5	164	66	40,24	433	142	32,79	10372	1272	12,26	10969	1480	13,49
LH6	263	80	30,42	544	170	31,25	10928	1352	12,37	11735	1602	13,65
<b>LH</b>	<b>959</b>	<b>362</b>	<b>37,75</b>	<b>1779</b>	<b>542</b>	<b>30,47</b>	<b>62073</b>	<b>7431</b>	<b>11,97</b>	<b>64811</b>	<b>8335</b>	<b>12,86</b>
DBH1	303	75	24,75	418	93	22,25	10696	839	7,84	11417	1007	8,82
DBH2	343	80	23,32	428	102	23,83	10349	930	8,99	11120	1112	10,00
DBH3	329	63	19,15	383	104	27,15	8616	859	9,97	9328	1026	11,00
DBH4	286	57	19,93	349	121	34,67	7853	1016	12,94	8488	1194	14,07
<b>DBH</b>	<b>1261</b>	<b>275</b>	<b>21,81</b>	<b>1578</b>	<b>420</b>	<b>26,62</b>	<b>37514</b>	<b>3644</b>	<b>9,71</b>	<b>40353</b>	<b>4339</b>	<b>10,75</b>
BATXI1	317	67	21,14	161	18	11,18	5889	626	10,63	6367	711	11,17
BATXI2	332	26	7,83	557	17	3,05	6169	104	1,69	7058	147	2,08
<b>BATXI</b>	<b>649</b>	<b>93</b>	<b>14,33</b>	<b>718</b>	<b>35</b>	<b>4,87</b>	<b>12058</b>	<b>730</b>	<b>6,05</b>	<b>13425</b>	<b>858</b>	<b>6,39</b>



Itunpeko ikastetxeetako datuak beste batzuk dira, hemen ikasleen %50a baino gehiago ikastetxe erlijiosoetan matrikulatzen baita. Horrela, ikasleen %58 inguruk erlijioa klaseak jasotzen ditu. Hala ere, hemen ere gainbehera nabaria da, LHn 2,05 puntu eta DBHn 3,67 jaisi baita. Beherakada honen oinarria ikastetxean erlijio aukeratu bai ala ez baino gehiago, familiek kristau balioei bizkar eman eta ikastetxe erlijiosoetan hurrak gero eta gutxiago matrikulatzen dituztelako da.

	A			B			D			Guztira		
	Ikasleak	Katolikoa	%	Ikasleak	Katolikoa	%	Ikasleak	Katolikoa	%	Ikasleak	Katolikoa	%
LH1	423	284	67,14	2861	2368	82,77	5737	2433	42,41	9021	5085	56,37
LH2	470	306	65,11	3142	2639	83,99	5950	2521	42,37	9562	5466	57,16
LH3	477	288	60,38	3261	2804	85,99	5871	2493	42,46	9609	5585	58,12
LH4	487	299	61,40	3453	2974	86,13	5896	2500	42,40	9836	5773	58,69
LH5	535	344	64,30	3535	3017	85,35	6166	2610	42,33	10236	5971	58,33
LH6	577	375	64,99	3821	3229	84,51	6214	2596	41,78	10612	6200	58,42
<b>LH</b>	<b>2969</b>	<b>1896</b>	<b>63,86</b>	<b>20073</b>	<b>17031</b>	<b>84,85</b>	<b>35834</b>	<b>15153</b>	<b>42,29</b>	<b>58876</b>	<b>34080</b>	<b>57,88</b>
DBH1	834	543	65,11	4359	3451	79,17	6786	2834	41,76	11979	6828	57,00
DBH2	945	642	67,94	4382	3463	79,03	6601	2898	43,90	11928	7003	58,71
DBH3	794	608	76,57	3783	3175	83,93	6081	2598	42,72	10658	6381	59,87
DBH4	789	476	60,33	3491	2979	85,33	5647	2568	45,48	9927	6023	60,67
<b>DBH</b>	<b>3362</b>	<b>2269</b>	<b>67,49</b>	<b>16015</b>	<b>13068</b>	<b>81,60</b>	<b>25115</b>	<b>10898</b>	<b>43,39</b>	<b>44492</b>	<b>26235</b>	<b>58,97</b>
BATXI1	2506	1894	75,58	917	683	74,48	4092	1556	38,03	7515	4133	55,00
BATXI2	2613	312	11,94	885	51	5,76	4206	162	3,85	7704	525	6,81
<b>BATXI</b>	<b>5119</b>	<b>2206</b>	<b>43,09</b>	<b>1802</b>	<b>734</b>	<b>40,73</b>	<b>8298</b>	<b>1718</b>	<b>20,70</b>	<b>15219</b>	<b>4658</b>	<b>30,61</b>

## Ebaluazioa/notak

Batzuk diote lan gutxi eginda erlijio katolikoa irakasgaia gaintitzen dela eta ez hori bakarrik, nota ere oso altua dela gainontzeko ikasgaiekin alderatuta. 22-23ko datuak hartuko ditugu kontuan eta guztiekin ez bada ere, gainerako irakasgai batzuekin egingo dugu konparatiba.

Gaintituak LH	
Ikasleak	Katolikoa
Erljio katolikoa	%99,72
Gaztelania	%93,84
Euskara	%86,30
Matematika	%90,57

Gaintituak DBH	
Ikasleak	Katolikoa
Erljio katolikoa	%97,41
Plastika	%95,83
Teknologia	%94,90
Gaztelania	%90,76
Euskara	%88,09
Matematika	%85,00

Datu hauek eskuan hartuta, argi ikusten da bai LHn eta bai DBHn aprobata kopuru altuenak erlijio katolikoan ematen direla, batean %99,72ko kopuruarekin eta bestean %97,41arekin. Nork ez luke ikasgai hau aukeratu ezer gutxi eginda halako aprobata kopurua badu? Zorionez familien hautua beste bat da. Eta zifra hauei buruz zer esan? Ezer gutxi, artikularen hasieran esan bezala, zenbaki hauek ikusita beste ezer esan beharrik ez baitago.



Zoritxarrez bi etapa hauetako batezbesteko notarik ez dugu baina bai batxilergokoak, beraz, ebaluazioaren atal hau gehiago sakonduko dugu etapa honetan.

	Batxilergoa I		Batxilergoa II	
	Gaindituak	Nota	Gaindituak	Nota
Erljio katolikoa	%99,98	8,87	%100,00	8,99
Euskara	%96,52	6,84	%98,90	7,15
Gaztelania	%98,83	7,48	%98,83	7,37
Filosofia	%97,00	6,81	%98,92	6,87

Erljio katolikoak ikastetxeetan duen gainbeherari galga jarri nahian, PPren LOMCEk ikasgai hau EBAUrako batezbesteko nota ateratzeko gainontzeko ikasgaiekin batera jarri zuen eta matrikulazioan gorakada izan zuen. Neurri bidegabe hau ez dugu baloratuko. Nola ez zuen ba ikasleak ikasgai hau aukeran hartuko, ezer gutxi eginda gutxienez 9ko nota ateratzen bazuen? Nola ez hautatu erlijioa, batezbestekoan euskara edo gaztelaniako nota baino 2 puntu gehiago ematen bazituen? Zorionez LOMLOEk neurri hau atzera bota eta erlijio matrikulazioa inoiz izan duen maila baxuenera erori da. Eskerrak!

Batxilergoan gaindituen kopurua oso altua izaten da orokorrean irakasgai guztietan, baina nola ez, hemen ere txapela erlijio katolikoak irabazten du. Eta notei dagokienez, zer esanik ez.

## Finantzaketa

Atal honetan, EAEko ikastetxe erlijiosoek itunetan jasotzen duten finantzaketaz gain, ikastetxe publikoko erlijio katolikoko irakasleek jasotzen duten nomina ere kontuan hartuko dugu. Hau da, Kristau Eskola, Elizbarrutiko Ikastetxeak eta Opusen kontrolpean dauden ikastetxeen finantzaketari, ikastetxe publikoetako LH, DBH eta BATXIko erlijio irakasleen soldatak gehituko dizkiogu. Kalkulu honetatik kanpo geratuko dira udalek, familiek edo erakunde publiko zein pribatuak ikastetxe hauei ematen dieten dirutza, soilik Hezkuntza Sailak zuzenean emandako finantzaketa hartuko dugu kontuan.

	ITUN KOP.	€/ITUN	€
Haur Hezkuntza I	179	78.723	14.091.422
Haur Hezkuntza II	596	78.723	46.918.926
Lehen Hezkuntza	1495	82.480	123.308.093
Bigarren Hezkuntza I	571	114.297	65.263.661
Bigarren Hezkuntza II	557	128.591	71.625.298
Batxilergoa	385	131.784	50.736.867
Laguntzako langileak	*	*	48.870.880
Lanbide Heziketa	*	*	52.453.000
<b>Guztira</b>	<b>*</b>	<b>*</b>	<b>473.268.148</b>

2023/24 ikasturteko ituntze aginduak ikastetxe erlijioso hauek 473M€ko finantzaketa jasotzen dutela dakar. Bada zerbait, ezta? Taula asko ez luzatzearen, laguntzako langileen eta LHko modulu desberdinen finantzaketa ez dugu zatika jaso. Banaketa lurraldeka egingo bagenu, Bizkaiko ikastetxe erlijiosoak izango lirateke finantzaketa handiena jasoko luketenak (270,7M€), Gipuzkoakoek atzetik jarraituko liekete (112,3M€) eta azkenik Arabakoek (90,2M€).





Beste dirulaguntza zuzena eskola publikoko erlijio irakasleei ematen zaien soldata da. EAEn guztira erlijio katolikoko 90 irakasle daude LHn eta 50 DBHn, eta antzinatasuna kontuan hartu gabe, 5,57M€ xahutzen ditu Sailak horien nominatan. Oso irakasle gutxi dira erlijio ordukin bere ordutegia osatu dezaketanak, DBHn batezbeste erlijio 6,5 ordu ematen dituzte. Hau horrela izanda, ikastetxeak enplegatu hauei ordutegia osatzera behartuta daude. Hauek beste irakasgaietako orduak hartu ditzakete baina gainontzekoek ezin dute inolaz ere erlijio ordukin beraien ordutegia osatu. Bitxia, ezta?

## Motzean

- Ikastetxe ez-erlijiosoetan ere kristautasunak bere arrastoa utzi du eta oraindik ere santu edo birjinen izena duten ikastetxeak aurki ditzakegu. Horrela ikastetxe publikoetan Arantzazuko Ama Ikastola edo San Andres eskola publikoa aurkitu ditzakegu edo Ikastolen Elkartean Santo Tomas Lizeoa edo Inmakulada LH. Zizurkilgo San Millan eskola publikoa izena aldatzear da, hori da bidea!
- Nahiz eta gela osatzeko 10 ikasle behar, erlijio katolikoaren kontrako bidea egiten ari dena islama da. LH6an ikasleen %1,07aren matrikula jasotzetik, LH1ean %1,27a izatera pasa da, hau da, 6 urtetan %18,7ko igoera izan du.

	A			B			D			Guztira		
	Ikasleak	Islam	%	Ikasleak	Islam	%	Ikasleak	Islam	%	Ikasleak	Islam	%
LH1	88	4	4,55	169	13	7,69	9571	108	1,13	9828	125	1,27
LH2	159	9	5,66	192	8	4,17	10667	96	0,90	11018	113	1,03
LH3	132	11	8,33	176	9	5,11	10094	95	0,94	10402	115	1,11
LH4	153	23	15,03	265	11	4,15	10441	84	0,80	10859	118	1,09
LH5	164	19	11,59	433	18	4,16	10372	78	0,75	10969	115	1,05
LH6	263	10	3,80	544	27	4,96	10928	88	0,81	11735	125	1,07

- 22/23 ikasturtean, LH duten eskola publikoko 338 ikastetxetatik 120tan ez da erlijioan inor matrikulatu, 62tan 5 ikasle baino gutxiago dituzte gelako, eta soilik 94 ikastetxe dira, %27,8a, erlijio gelatan 10eko ratioa edo handiagoa dutenak.
- Derrigorrezko hezkuntzako etapatan azken bi urte hauetan ikastetxe erlijiosoek, eta orokorrean itunpeko ikastetxe guztiek izan duten ituntze moduluen igoera %12koa izan da, hau da, batezbeste 40 €ko igoera izan dute ikasleko eta hileko. Ikastetxe hauen hileko kuota 30-40€ ingurukoa izanik, zergatik dagoeneko ez dira doakoak?

Itun Mod.	2021/22	2023/24	△ €	Ratioa*	€/Ikaslea	€/Ika./hil.
Haur Hezkuntza	69.897 €	78.723 €	8.826 €	19,20	460 €	38 €
Lehen Hezkuntza	73.112 €	82.480 €	9.368 €	23,01	407 €	34 €
DBH 1. Zikloa	101.186 €	114.297 €	13.111 €	24,87	527 €	44 €
DBH 2. Zikloa	113.946 €	128.591 €	14.645 €	25,13	583 €	49 €
Batxilergoa	116.686 €	131.784 €	15.098 €	27,34	552 €	46 €

Laburbilduz, zenbakiak baieztatzen digute erlijio katolikoko gaintu kopurua beste ikasgaietako baina handiagoa dela, ateratzen diren notak beste ikasgaiekin alderatuta altuagoak direla, ikasgai honen matrikulen gainbehera orokorra dela eta jasotzen duen finantzaketa ikaragarri handia dela. Azaldu dugun moduan, zoritxarrez eliza katolikoa errotuegia dago EAEko hezkuntzan eta honen aurrean **STEILASek** laikusaren alde tinko jarraituko du borrokan. ■





# LAN-LEGEPEKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEON HITZARMENAK 20 URTE!

Apirilaren 22an, 20 urte bete ziren Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileon hitzarmena indarrean sartu zela. **STEILAS**tik, berri ona ez zen arren, umorez hartu eta Hezkuntza Saila zoriontzea erabaki genuen. Bai, zoriondu; gure hitzarmenak 20 urte betetzea lortu duelako.



Horren urteurren garrantzitsura iritsita, merezi duen oparia egitea ere ezinbestekoa zitzaigun eta, sailaren azken urteetako jarrera ikusirik, zer hobeto gure aldarrikapen batzuez apaindutako pastel eta bideo bat baino?



## LAN HITZARMEN BERRIA ORAIN!

# Lan hitzarmenaren kronologia txikia

## (azken 4 urteetako)

✘ Urrian artikulatuaren proposamena

✘ Otsailean funtzioak lantzen hasten gara

✘ 38. artikulura iristen gara

2020  
2021

✘ Artikulatuarekin hasten gara (Berriro)

✘ Ordutegia murrizteko proposamena mahai gainean

✘ Jangela kentzeko proposamena (HLE)

2021  
2022

✘ Lan hitzarmenarekin hasten gera (Berriro eta hasieratik)

54. artikulura arte eta gure ekarpenei feedback-ik ez

2023  
2024

### BENETAKO BERRI ONIK?

Adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa bitartekoentzat **STEILAS**etik gaia judizializatzearen ondorioz

### LABURBILDUZ...

✓ Negoziazio errealik ez

✓ Artikulu asko landu gabe

!!! Sektorean haserrea eta nekea

Tamalgarrria den arren, ezin dugu ahaztu azken lau urte hauetan eman den negoziazio eza!

Izan ditugun aurrerapauso edo lorpenak, beti bide judizialetik edo Sailak lege iruzurreratik zuzendu behar izan dituen egoerengatik eratorriak izan dira (Adinagatiko Arreta Zuzenaren Murrizketa, Meritu Lehiaketa, baimenetan aldaketak...

Saiakera asko egin ditugun arren, momentuz, ez da benetako negoziazorik eman Sailarekin. ■

# Haurreskolak Partzuergoko Negoiazioa



Hobekuntzarik ez

Sasi hobekuntzak

Hobekuntzak



## 1. Lanpostuen zerrenda + lanpostuen estrukturalizazioa + kontratazioa + desplazamenduen erabileraren amaiera

Negoiazioan zehar, lanpostuen zerrendan lanpostu hutsak uzten saiatu gara, jakin badakigulako horiek beharrezkoak direla gure zerbitzuan sortzen diren beharrak asetzeko. Ezin izan da. Hala ere, 12.4 artikulua moldatzeko akordioan lanpostuen estrukturalizazioa jasota geratu da, baita behin-behinekotasun tasa %5a baino gutxiagokoa izango dela ere.

Horri lotuta, hasieratik lan metaketa kontratudunak eta ordezkapen partzialak ezin desplazatu izatea txertatu nahi izan dugu, behar estrukturalak ez estaltzeko. Baina enpresak ez digu kasurik egin.

LALari dagokionez, behin-behinean beteta dauden lanpostuak eta hutsik daudenak behin betiko langileei atxikitzeko eskatzen jarraituko dugu.



## 2. Ratioak

Administrazioak gure proposamena ez onartzeaz gain, ratioei buruzko proposamen berria luzatu digu; **STEILAS**entzat guztiz onartezina dena. Proposamen hori prestakuntzarako ordu bat izatearekin lotu dute.

Unitate bakarreko haurreskoletan, sei orduko zerbitzua emango duen hezitzaile bakarra proposatu dute (sei haur egon arte). Gauza bera proposatzen dute unitate gehiagoko haurreskoletan, baldin eta lau hezitzaile baino gutxiago badaude. Jakinda hezitzaile bakoitzak zazpi orduko jarduna egiten duela, nola bermatuko dute koordinazioa eta prestakuntza egitea? Argi dago gela bakarreko haurreskoletako hezitzaileek eskubide gutxiago izango dutela seigarren ikaslea matrikulatu arte.

Lan zama arindu eta zerbitzuaren kalitatea bermatu beharrean, lanpostuak murriztu eta langileen lan baldintzak kaskartu dituzte.



## 3. Ordainsariak

Arlo honetan ez digute proposamenik egin. Mahai orokorrean eta Madrilen arautzen denez, aitzakia ezin hobea du administrazioak arlo honetan ekarpenik ez egiteko. Plusak txertatzeko eskatu dugu behin eta berriro, baina ez dute onartu.



## 4. Lan zama arindu

**STEILAS** sindikatuan argi daukagu 30 orduko astea lortzeko bidea abian jarri behar dugula, baita egutegia Euskal Eskola Publikoarenarekin parekatu behar dugula ere. Horiek izan dira gure ezinbesteko eskaerak negoiazioan, baina administrazioak ez du inongo aurrerapausurik eman bide horretan.

Zer proposatu digu? Bi txanda egun kentzea eta egutegi orokorra jartzea haurreskola guztientzat, Haurreskoletako autonomia mugatuz jai lokala txertatzea.

Koordinazio denbora handituko dute, baina murrizta izaten jarraituko du koordinatzaileek duten lan karga ikusita.

Bestalde, formazio orduak prestakuntzan sartuko dituzte eta denbora horretan egin beharreko lanak handitu egingo dira. Hortaz, haurreskola askotan prestakuntzarako aukerarik ez dagoela jakinda, ordutegiz kanpo geratzeko arriskua egongo da. Lan ordu gutxiagotan lan berdina egin behar izango dugu, beraz, lan zama handituko da.

Urte sabatikoaren proposamena onartu dute, baina ez dute aipatu disfrutatzeke baldintzak zeintzuk izango diren, espresuki eskatu arren. Zergatik?





## 5. Gazte berritze plana

Mahai orokorrean lantzen den gaia da eta oso zaila egin zaigu horren inguruko proposamenak jasotzea. Hala ere, akordio bidez aurrerapauso txiki bat lortu genuen: 63 urterekin adinagatiko murrizketa ezartzea hezitzaile GUZTIEI, hau da, errelebo kontratua hartzeko aukerarik ez dutenei ere.



## 6. Formazioa berritzeko plana

**STEILAS** sindikatuarentzat berariazko garrantzia duen gaia izanda, ekarpen hauek egin genituen: formazioa birplanteatu, aukera ezberdinak eman, ordezkoentzat egokitu... Baina ezer ez da lan hitzarmenean jaso. Administrazioak soilik lan ordu kopurua desagertzea proposatzen du, eta formazioko zereginak lan pertsonaleko orduetan burutzea. Guretzat nahikoa ez dena.



## 7. Lan osasuna

Zehaztasunik gabeko arrisku psikosozialen inguruko azterketak aipatzen dira.



## 8. Lizentzia, baimenak eta eszedentziak

Nahiz eta aldaketa txiki batzuk egon, gutxi dira administrazioaren aldetik proposatu izan direnak:

- Norberaren eginkizunetarako baimenean 3 eguneko minimoa jarri nahi dute, justifikaziorik gabe.
- Azterketak egiteko eta senideen ezkontzetara joateko egun bat gehiago eskaini digute.

Jendarteak aho batez eskatzen du zaintzak erdigunean jarri eta familia eredu ezberdinen aitortza egiteko, eta sindikatuan argi dugu bide horretan aurrera egiteko baimenak eta lizentziak arautzen dituzten artikulua aldatu behar ditugula; baina badirudi administrazioak ez duela hain argi.



## 9. Ordezkoen araudia

Urteetan Ordezkoen araudia plataforma martxan jartzea eskatu dugu eta behingoz proposamen erreal bat daukagu mahai gainean. Momentuz, plataformaren hezurdura adostuko dugu, jakinda horren gida sortu eta ordezkoen araudia moldatu behar dela.

Kudeaketa langileen ordezkoen araudiari buruz, barne promozioari buruz... ez dute proposamenik egin.

Laburbilduz, lan hitzarmen honen negoziazioa amaitu da eta **STEILAS** sindikatuak argi du ez dela benetako negoziatorako aukerarik egon. Batez ere, **STEILAS** ezinbestean adostu beharreko 3 puntuetan:

- Ratioen hobekuntzan.
- Eguneko eta urteko jarduneko orduen murrizketan eskola publikoarekin baldintzak parekatzeko bidean.
- Eroste ahalmenean galdutakoa berreskuratzeko bidean.

Ekarpenak, proposamenak, ezinbesteko eskaerak,... airean geratu dira, borondate eta hobekuntza gutxi eta murrizketa gehiegi, langileon eskubideek azkenengo lerroan egoten jarraitzen dute. Beraz, **STEILAS** sindikatuan, gure lan eskubideen alde borrokan jarraituko dugu elkarrekin lehenengo lerroak hartu arte!





# BALOIAK KANPORA!

Las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA se empeñan en hacer conflicto del acuerdo. Convirtiendo lo fácil en difícil. Han pasado más de tres meses de la firma del acuerdo y Kristau Eskola y AICE-IZEA dicen ahora que los salarios firmados son un borrador provisional e incluso comprometen la aplicación del proceso de recolocación con la excusa de los cambios legales que pudieran producirse en la jubilación parcial.

**¡Balones fuera!**

¡Balones fuera!, sí, pero todos,  
¡Todos los balones fuera!  
Nuestra reivindicación históricamente política es cada vez más necesaria desde el punto de vista laboral, también. Existe la imperiosa necesidad de que no exista intervención alguna de las patronales en la contratación y en las condiciones laborales de las personas trabajadoras de la red privada concertada. Desde **STEILAS** estamos convencidas que debemos iniciar una interpelación firme al Departamento de Educación para que asuma la contratación y la negociación colectiva de las personas trabajadoras de este sector y que, a su vez, les garantice unas condiciones laborales dignas.

Hori izan daiteke Gorputz Hezkuntzako irakasle batek ikasleekin ikas-egoera bat garatzeko bere jolasetako bati jar ziezaiokeen izena. Aipatu ere, Kristau Eskolaren eta AICE-IZEAren sarean lan egingo balu, 2020ko taulen arabera kobratzen jarraituko lukeela.

Baina ez gara horretaz ari, ez. "Baloiak Kanpora!" aipatzean, Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalak 2024ko otsailaren 5ean Grebaren Amaiera Akordioa sinatu ondoren negoziazio mahaietan izaten ari diren aurrekaririk gabeko jarreraz ari gara. Sektoreko langileok 14 eguneko greba egin behar izan genuen 2021etik iraungita zegoen hitzarmena berritzeko. Akordio on bat lortu genuen, baina patronalek ez dute aplikatu oraindik.

Bertan, funtsezko hobekuntzak jasotzen dira, hala nola: KPla bermatuta 2024ra arte %16ko igoerarekin (finantzaketarekin lotu gabe), Lan Hitzarmenean birkokapen araudia txertatzea da kalte-ordainak eta antzintasuna aitortzeko neurri berriak ezarriz, lan zama arintzeko neurriak kolektibo guztientzat, Lanbide Heziketan erregularizazio esanguratsua, eta berdintasun eta euskara planak gauzatzeko eta arrisku psikosozialen azterketak abian jartzeko betebeharrak ikastetxe guztietan.

Hala ere, Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek akordiotik gatazka sortu nahi dute, erraza dena zail eginez. Akordioa sinatu zenetik hiru hilabete baino gehiago igaro dira, eta Kristau Eskolak eta AICE-IZEAk orain esan dute sinatutako soldatak behin-behineko zirriborro bat direla (2020ko soldata-taulen arabera ordaintzen jarraitzen dute), eta Eusko Jaurlaritzak ordainketa eskuordetuaren taula berriak onartzearen mende daudela. Baloiak Kanpora!

Hori gutxi balitz, behin-behinekotasuenean



# BALOIAK KANPORA!

eta hitzarmenetik kanpo utzi nahi dute akordioaren beste zutabeetako bat: birkokapena. Birkokapen prozesuan kalte-ordainak eta antzinasuna aitortzeko araubide berria alde batera utzi dute; are gehiago, birkokapen prozesuaren aplikazioa bera ere kolokan jarri dute, erretiro partzialean gerta litezkeen legezko aldaketak aitzakiatzat hartuz. Baloi gehiago kanpora!


Egoera larria da, baina ez berria, tamalez. Patronalek ez dute akordioa bete nahi eta Hezkuntza Sailaren finantzazio gehiago jaso arte baldintzatzen dute. Egoera honen aurrean, **STEILAS**etik hiru gogoeta egiten ditugu:

- 1** Lehenengoa da eskura ditugun mekanismo juridiko eta sindikal guztiak aktibatuko ditugula akordioa gauzatzeko, zalantzarik gabe.
- 2** Bigarrena da negoziazio kolektiboa eta etorkizunean egin daitezkeen akordioak gero eta utopikoagoak direla. Patronalek gero eta gehiago eusten diote ez negoziatzeari, eta egitekotan, ez dituzte akordioak betetzen.
- 3** Eta hirugarrena da **STEILAS**ek Kristau Eskolak proposatutako jolasean parte hartu nahi duela: Baloiak kanpora!, bai, baina baloi guztiak kanpora. Historikoki, gure aldarrikapen politikoa gero eta beharrezkoagoa da, lan ikuspegitik ere. Behar-beharrezkoa da patronalek inolako esku-hartzerik ez izatea itundutako sare pribatuko langileen kontratazioan eta lan-baldintzetan. **STEILAS**etik ziur gaude interpelaziori ekin behar diogula, Hezkuntza Saila baita itundutako sare pribatuaren finantzatzaile nagusia eta azken arduraduna. Beraz, interpelazio irmoa beharrezkoa da, Hezkuntza Sailak bere gain har ditzan sektore honetako langileen kontratazioa eta negoziazio kolektiboa eta, aldi berean, lan-baldintza duinak berma diezazkien.

**Kristau Eskolak jolastu nahi du, jolas gaitezen!**

**BALOIAK KANPORA!**






\*Edozein kasutan, erreferentziako dokumentua Birkokatze Araudia da.

## BIRKOKATZE ARAUDIA, LABURPENA

HELBURUA: ikasgelak ixtearen ondorioz lanpostua galdu duten lan-kontratu mugagabeko langile gehienak birkokatzea.



\*Edozein kasutan, erreferentziako dokumentua Birkokatze Araudia da.



## EHU eta Palestinaren aldeko adierazpena



Gure erakunde politikoak isil-isilik daude, ez dira gai Israelgo Gobernuaren palestinar herriari egiten ari zaien genozidioa irmotasunez salatzen. Gure hiri eta herrietan, aldiz, jendartea aspalditik ari da mobilizatzen armada sionistaren sarraskia geldiarazteko eskatuz. Izan ere, urriaren 8tik hona Gazako Zerrendan, 35.000 pertsona inguru hil dituzte (14.000 haur), eta urte erdi baino gehiago igaro arren, beren bizitzari eustea lortu duten pertsonak ez dira behar moduko nazioarteko laguntza jasotzen ari. Israelgo gobernu sionistak aurrera jarraitzen du lurralde palestinarra osorik kolonizatu eta anexionatzeko helburuarekin. Indarraren erabilera neurrigabearekin traba egiten dion guztia aurretik eramaten ari da, eta nazioarteko komunitateak aurre egiten ez dion bitartean, triskantzak aurrera jarraituko du.

Apirilaren 24an, azkenik, Palestinaren eta Giza Eskubideen aldeko pausoa eman eta EHUko Gobernu Kontseiluak manifestu bat argitaratu zuen. **Palestina laguntzeko manifestua Gazako hondamendi humanitarioaren aurrean** izeneko idazki hartan, besteak beste, EHUk hurrengo konpromisoa hartu zuen: "Harreman komertzialik edo akademikorik ez ezartzea eta berrikustea giza eskubideak, nazioarteko zuzenbidea edo Nazio Batuek Palestinako egoerari buruz emandako ebazpenak errespetatzen ez dituzten eragileekin".



**STEILAS**ek egindako ekarpen guztiak onartu ez ziren arren, orduko testuinguruan, positibotzat eta beharrezkotzat jo zen adierazpena. Israelgo erakunde, unibertsitateei eta haiekin elkarlanean daudenen ateak irmoago ixteko aukera galdu bazen ere, lehen urrats gisa eraginkorra izango zela uste genuen. Izan ere, EHUren manifestuak isiltasun-instituzionala hausteko balio izateaz gain, beste unibertsitate batzuek Palestinari elkartasun publikoa eskaintzeko euskarri gisa balio izan du. Are gehiago, maiatzaren 9an, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak (CRUE) ere, bere burua Israelen jarreraren kontra manifestu propioa argitaratzera behartuta ikusi zuen, bere ikuspegi epela agerian geratu bazen ere.

Zalantzarik gabe, EHUk emandako lehen urratsa, neurri handi batean, unibertsitate-komunitatearen mobilizazio-gaitasunaren ondorio izan da. Ez da alferrikakoa izan Unibertsitatean egindako lan guztia. Hor dago Klaustorra begira egindakoa, non era estraofizialean izan bazen ere klaustrokide gehienek sinadurak bildu ziren; baita EHUko Palestinaren aldeko taldearen sorrera ere, non ikasleak, irakasleak eta TEKAZELak elkarrekin lan egiten bildu diren; edo estatuko Palestinaren aldeko Unibertsitate Sarearekin koordinatutako lana, gaitzespen-kontzentrazioetara deituz eta NBEko Francesca Albanese errelatorearekin hain bideokonferentzia egokia antolatuz... ahaztu gabe, tantaka, fakultate ezberdinetako gero eta sail gehiago Israelgo genozidioaren aurkako mozioak onartzen ari direla. Ekintza horiek guztiek balio izan dute eta hemendik aurrera balio izango dute, injerentzien gaineretik, zuzentzen gaituztenak baldintzatzeko. Beraz, BDZk proposatutako Israeli boikota eta ikasleen kanpaldiak bezalako ekimenak beharrezkoak izango dira, zalantzarik gabe, Palestinako Herriari 70 urte baino gehiagoz ukatzen ari zaion justiziarako bide luzeari ekiteko. ■

**Apartheidaren eta genozidioaren  
aurka borrokatzen duen  
unibertsitate baten alde!**

**Palestina aurrera!**



# Eskola publikoa ala basakeria

Ez dago dirurik, hori da Hezkuntza Departamentuak erabiltzen duen aitzakia Hezkuntza Publikoa hobetzeko Ituna ez betetzeko edo planteatzen direnean neurriak etapa guztietan ratioak linealki jaisteko, Espainiako eta Nafarroako gobernuak kendu diguten erosteko ahalmena berreskuratzeko edo lan gainzama murrizteko.

Errepikatzen dute "ez dago dirurik" gezurra galanta, zirkinik egin gabe, Nafarroak politika austerizidak ezartzen dituen bitartean, hala nola izatea zorra gehien murriztu duen erkidegoa; zilegitasunik gabeko zorra, UPNren eta PSNren gobernatzeko modu okerrak sortua, itzaleko bidesariekin, AHTren diruaren aurrerapenarekin eta beste hainbat praktika ustelekin. Jakina, politika horien helburuak dira enpresaburu lagunak eta funts putreak aberastea. Horiek ekarri zuten, besteak beste, Nafarroako Kuxaren desagertzea.

Nafarroak estatuari ordaintzen dion diruarekin finantzatzen da urtero handitzen den gastu militarra ere, 2023an % 10eko igoera izan duena, edo gehiengo historikoa polizia eta guardia zibilen kopuruan. Bien bitartean, "Espainiako Historiako gobernurik aurrerakoienak" Mozal Legea indarrean dauka, gizartearen protestak zigorgabetasun handiagoarekin erreprimitzeko.

Hezkuntza publikoak murrizketak jasan ditu 2010az geroztik, eta deskapitalizatu egin da, beste zerbitzu publiko batzuk bezala, hala nola osasuna edo mendeko pertsonen arreta, kapitalismo neoliberalak horiek parasitatu eta prebenitu ahal izateko eta, horrela, enpresen onura areagotzeko. Horren adibidea litzateke eskola publikoetako jantokien erabateko pribatizazioa, duela gutxi egindako foru dekretu batean jasoa; hori bai, guztia "greenwashing" propagandarekin behar bezala estalia.

Baliabide urriak bideratzen dira Hezkuntza Publiko tentsionatu batera, gero eta ikasle zaugarri gehiago eskolatzen duenera, zein ikuspegi sozioekonomikotik zein psikologikotik. Hezkuntza arreta behar duten ikasleen % 20k soilik jasotzen du arreta berriazko hori, eta laguntza jasotzen zuen ikasleen proportzio esanguratsu bat baztertuta gelditzen da baliabide eskasak banatzean.

Irakasleak ezinean eta isolatuta aurkitzen dira ikasleen arazo guztiei aurre egiteko garaian eta, gainera, gehiegi kargatzen dira zeregin burokratikoekin eta erantzukizunekin, horretarako ordurik izan gabe. Horrela, irakasleek arrisku psikosozial handiagoei egin behar diete aurre, eta arrisku horiek, kontratazio zerrendak kudeatzeko sistema toxikoekin batera, baja mediko gehiago eragiten dituzte.

Erremedio gisa, askotan zabor ikasketatzat jo daitezkeen jarduerak egitea planteatzen da. Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala (DUA) horretan datza, hain zuzen ere: ez dagoenez orientazio-baliabiderik, PTrik, logopedarik edo hezkuntza bereziko irakaslerik, edo talde bikoizketarik eta laguntzarik, maila akademikoa jaisten da, ikaskuntzak ustez ikasle guztien eskura egon daitezen; horrela, murrizketak "pedagogia aurrerakoi" bihurtzen dira. Dena okertzeko, PAI arrastatzen dugu, eta horrek murrizketa onartezin bat eragiten du ikasgaien ikaskuntzan. **Eskola Publikoak baliabide egokiak izatea ezinbestekoa da gizarte kohesionatua, bidezkoa eta demokratikoa lortzeko. Zerbitzu publikoen deskapitalizazioak basakeriara garamatza.**

Murrizketek eta inbertsio ezak ekarri dute baliabide urrien banaketa, eta hori D eredu ikastetxe gehienetan nabaritu da. Gobernuarentzat ikasle euskaldunak "pribilegiatuak" omen dira. Noiz arte onartuko dute bazterkeria hori alderdi euskaltzaleek? ■



# Nazioarteko egun ponpoxen aitzakian, ZORROZTU DITZAGUN LUMAK

Maiatzaren 17a LGTBIfobiaren aurkako eguna da. Gakoa da izenari erreparatzea eta nabarmentzea fobiaren aurkako eguna dela. izan ere, fokoa ez dago lesbianismoan, homosexualitatean, transexualitatean, bisexualitatean edota interese sexualitatean. Erasotzailearen fobia da fokupean ipini beharrekoa.

Nola eraikitzen da LGTBIfoboaren gorrotoa? Esan bezala, fokoa erasotzailean dago, ez erasotuan. Antzeko ildoan aldartea, ikasle transei eta haien familiei laguntzeko EAEko ikastetxeetarako protokoloa irakurri ondoren. Txapela kentzekoa jakina zaurgarritasun egoeran dagoen kolektiboko kide oro laguntzeko sistematizatu diren urgentziatzeko neurriak zehaztu izana. Faltan, ordea, erasotzen gaituen sistema binarioa apurtzeko neurriak. Faltan erasotzailea den sistema binarioa fokopean ipintzea eta are garrantzitsuagoa, lan eskerga aurrera eramateko zein baliabide ipiniko dituen Hezkuntza Sailak ikastetxetan.

Maiatzaren 17aren harira, **STEILAS** sindikatuko LGBTIQ+ taldeak urteroko formakuntza egin dugu. Aurtengoan Hiruki Larroxako kideak etorri dira eta pornoa izan dugu hizpide. Arrakasta handia izan du formakuntza honek, ikastetxeetan egon badagoelako beharra honi buruz jarduteko. Hortaz, curridigi modukoak egin beharrean, ez al da komeni ikastetxeak entzutea eta horien formakuntza behar zuzenak asetzea? Jakin ezazue hitzaldia bera gure web orrian eskuragarri duzuela.

Ekainaren 28a ere badator gure harrotasuna lau haizetara zabaltzeko garaia, bai eta ordea, pride harro ez dela gogorazteko eguna. Alderdi politiko, elkarte eta enpresa andana hasiko da friendly bandera hartu eta egun hau purpurinaz betetzen, poltsikoak diruz betetzen. Jakina brilli-brillia gustuko dugula, baina argi utzita, jakin badakigula ekainaren 29a ere iritsiko dela eta borrokan jarraituko dugula, elkar artikulatu eta antolatuko garela, kaleak gure egin arte. Horren adibide izan dugu apirilean Leitzako bollo topaketa. Gure bizitzak bizigarriak izan daitezzen eztabaidatu genuen, bollera subjektuaren inguruan hausnartu genuen, eta gure bizitzei zuzenean eragiten dieten gaiak jorratu genituen.

Data ponpoxoak joan, data esanguratsuak etorri, erregimen heterosexuala ez onartzea eta horren aurka borrokatzea eguneroko jarduna da, egunez eguneko; izan ere, erregimen heterosexuala da eredu normatibo eta hertsia batean bizitzera kondenatzen gaituena, eta gure desira eta beharrei uko egitera behartzen gaituena. Gizon eta emakume bikoteetan behar gaituzte sistema kapitalista honek biziraun dezan. **STEILAS**ek hori iraultzen jarraituko du egunero, eskoletan, kaleetan eta instituzioetan. Ez dugu gizon edo emakume izan nahi, ez femenino edo maskulino, ez sumiso edo boteredun, ez inoren erdi: ni neu oso. ■



## Irauli dezagun betiko heteroaraua



## Martxoak 8

# Zaintzak emakume aurpegia dauka



Zaintza lanak ezinbestekoak dira bizitza eta osasuna sostengatzeko, gure gizartea eta munduaren iraunkortasunerako ezinbestekoak. Zaintza lanik gabe ezinezkoa izango litzateke sistema ekonomiko eta sozial honi eustea. Baina funtsezkoak izan arren, historikoki lan mota hauek emakumeoi egotzi zaizkigu nagusiki eta ikusezinak izan dira.

Etxeko esparru pribatuan dohainik, aitortzarik eta babes legalik gabe betetzen dugun zaintza lanari esker sistema kapitalista eta patriarkala sostengatzen da. Baina zertaz ari gara zaintza lanez hitz egitean? Pertsonen behar fisiko, psikologiko eta fisiologikoak asetzera doazen lan guztiak dira, hala nola, jaten eman, jantzi eta garbitu, botiken eta eritasunen jarraipena egin, eskolara joan-etorrietan lagundu, hezi... Bai eta horiek gauzatu ahal izateko aurretiko jarduerak, esaterako, janaria erosi eta prestatu, arropa eta etxea garbitu, sostengu emozionala eman... Beraz, mendekotasun egoera bat duen pertsona baten zainketaz gain, etxeko lanez ere ari gara.

Ez da kasualitatea sistema patriarkal eta kapitalistaren lanaren banaketa sexuarekin emakumeoi etxeko esparru pribatuko zaintza lan mota hauek egotzi izana. EAEko Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera, emakumeek etxeko eta zaintza lanen %70 inguru egiten dituzte. Eta gizonezkoek egitekotan, zaintza ludikoan inplikatzeko dira batez ere. Gizarte heteronormatibo honek emakumeak txikitatzen ditu lan horietarako gizarteratzen eta hezten gaitu, eta gainera lan mota horiek emakumeoi egotzen zaigun sentikortasunarekin lotu izanak, balioa kendu dio eta ekonomikoki gutxietsia izatea eragin du.

Besteak zaintzea ardura bat da, binkulu bat ere eragiten du. Baina zaintza binkulu afektiboekin zuzenean lotzea emakumeontzat zigor bat da, edozein arrazoiengatik zaindu nahi ez dugunean gure buruarekin gaizki sentiaraztera eramaten gaituena. Zaintzak ez du zertan maitasun ekintza bat izan behar.

Kontrakoa, funtsezkoak izan arren gutxietsiak direnez, zaintza lanak gehienetan esplotaziorako bideak dira, prekaritatea eragiten dutenak hain zuen ere. Horren

# IZAN ERREBELDE!

adibide dira Gizarte Segurantzaren datuak, adingabe edo senitarteko bat zaintzeko eszedentzien % 84,6 emakumeek eskatutakoak izan dira 2023an eta emakumeak dira ere kontziliazioaren izenean lanaldia murrizten dutenak gehienbat. Hau da, emakumeak dira pobretzen direnak, soldata galtzeko sasi-hautua egin dutenak. Eta horrek eragin zuzena dauka bikotekideekiko mendekotasunean, eraikitzen doan harreman-boterean, pribilegioen-erakuntzan eta etorkizunera begira jubilaziorako eskubidean.

Zer esanik ez, zaintza lan horiek externalizatzen ditugunean aurkitzen dugun errealitate lazgarria. Soldatapeko lan horietan dabilzan emakumeak (gehienbat migratu eta arrazaliziatuak) hain justu ere lan-baldintza prekarioenak dituztenak dira, lan-hitzarmen duinik ez dutenak, askotan modu irregularrean lanean inolako babesik gabe. Adinekoen egoitzen zerbitzuaren edota mendekotasun egoeran daudenen zainketarako zerbitzuen arduradunak Administrazio publikoak badira ere, existitzen diren prestazioak ez dira nahikoak eta sistematikoki enpresa pribatuen esku uzten dute zerbitzua. EAEn adinekoen egoitzen % 91 titulartasun pribatukoak dira, eta Nafarroan 71 egoitzetatik bi bakarrik dira publikoak. Etxez etxeko laguntza zerbitzuak ez ditu mendekotasun egoera larriak asetzen eta eguneko zentroek nahiz erresidentziek duten kopagoa jasangaitza da familia arrunten ekonomietarako. Zaintza-lanak gutxi batzuen negozio bihurtu dira.

Kontziliaziorako eta mendekotasun egoeretan daudenak zaintzeko bitarteko legalek emakume batzuen bizitza erraztu badute ere, ez dira batere eraldatzaileak. Ez dute zaintzaren lanaren problematika konpontzen, kontziliazioa ez da dirulaguntzekin konpontzen, zerbitzu duin publiko eta unibertsal gehiago behar ditugu, neurria eraikitako sare publiko hurbila. Horretarako batetik, Administrazioek bere erantzukizuna bete behar dute, bizitza bizigarria izan dadin benetan politiken eta plan ekonomikoen erdigunean bizitza bera jarri behar dute. Eta bestetik, urgentziak bertako langileen lan baldintzak eta bizitza egoerak hobetu behar dira zaintza kultura iraultzearekin batera. Zaintzaren inguruan ezarri zaigun eredu heteropatriarkala, familiaren barruan kokatua eta zaintzaren erromantizazioa kolokan jarritz.

Has gaitezen ezetz esaten, zaintza lanei eta etxeko lanei balioa emateko, Administrazioak bere kargu hartzeko eta guztion artean etxeko-lanak banatuak izan daitezen. ■





# Lan osasunaren DEFENTSAN



Apirilaren 28an Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, apirilaren 25ean langileen lan osasuna salatzeko mobilizazioak egin genituen Hego Euskal herriko hiriburu guztietan. Horrez gain, sektore feminizatuei lotutako lanbide gaixotasunak sistematikoki ezkutatu eta ukatzen direla ere salatu genuen.

Gaur egun daukagun prebentzio-sistema errotik aldatzeko beharra jarri genuen erdigunean. Hiru hamarkadatan patronalak araudia bete gabe egon ondoren, porrot egin duela frogatu egin baita. Patronalak ezin du, inondik inora ere, laneko osasunari buruzko araudia urratu.

**Laneko istripuak eta laneko gaixotasunak ekidin daitezke!**

Hortaz, EAeko eta Nafarroako gobernuek hori betearazteko behar diren bitartekoak jarri behar dituzte, eta hau aurrera eramateko honako hauek exijitu genituen:

- Egungo lan-ikuskatzaileen kopurua nabarmen handitzea, Europako batezbestekoa-ekin parekatuz.
- Osalanek eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) gaitasun eskusiboa izan behar dutela.
- Administrazioak jarrera aktiboa izan behar duela laneko osasunari buruzko araudia betetzen dela bermatzeko, eta, enplegatzailea den tokian, beharrezko lan osasuneko klausulak txertatu behar dituela kontratazio pleguetan.

Apirilaren 25ean bultzada handia eman genion laneko osasunaren defentsari, baina ezinbestekoa da hau egunero defendatzen eta beharrezkoak diren prebentzio neurriak aplikatzen jarraitzea. ■



# FREEDOM FLOTILLA COALITION

IHH Turkiako GKEak antolatu zuen Istanbuletik Palestinarantz irten behar zuen ontzidia, materialarekin eta jakiekin, baita militante askorekin ere.

Ontzidiaren helburua Palestinako genozidioa salatzea zen, Palestinako herriari bere lurrean duintasunez bizitzeko, eta bere etorkizuna garatzeko eskubidea izateko, horretarako blokeoari erantzun eta Gazara laguntza humanitaria bidaliz.

Aurrekoa 2010ean izan zen, Mar Marmara, Israelgo armadak hildako hainbat pertsona turkiarrek amaitu zuena. Ongi Etorriko hiru militantek parte hartu zuten ekimenean: Pili, Agus eta Mikelon. QRn integratuta irakur dezakezuen Pili eta Agusi egin genien elkarrizketa.

Hasiera-hasieratik Israelen, Estatu Batuen, Alemaniaren eta Britainia Handiaren presioak entzun ziren, ez baitzuten mendebaldeko 30 herrialde baino gehiagotako kidez betetako itsaontzi bat aboratu berriro egin nahi. Azkenean, Ginea Bissaok bere bandera kendu zuen eta ontzidia ezin izan zen itsasoratu.

Turkian egon ziren egunetan, ekimeneko partaideak batzarretan bildu ziren, eta bertan irten ahal izateko negoziazioei buruzko informazioa jaso zuten; Israelgo armadaren aldetik aboratzeari gertatuz gero nola jokatu behar zuten jakin zuten; kidesun-taldeetan bildu ziren, eta horien artean babes eta segurtasun pixka bat ematen zitzaion; mobilizazioetan parte hartu zuten... "Indarkeriarik gabeko autodefentsa-tailerra oso praktikoa eta erreala izan zen, eta Israelen aboratzeari baten aurrean nola jokatu behar genuen aholkatu ziguten. Hala ere, ez genekien armada sionistaren talde militar baten aboratzeari lagunduko zigun."



"Orain geratzen dena da lanean jarraitzea, Palestinari laguntzeko mugimenduetan, salatzen, erakunde sionista genozidarekin enpresak eta interesak markatzen, borrokan. Kendu zituzten banderak lortzen saiatzen jarraitzen dute, berriro nabigatzen saiatzeko. Ez diete Gazara iristen utziko, baina ontzidia hor nabigatzen egoteak genozidioa ere jartzen du kolokan, eta gure gobernuak mugiarazten eta erabakiak hartzen laguntzen du. Hori da orain helburua, flotilla atera eta nabigatzen jarraitzea. Helburua berbera da, blokeoa haustea, su-eten iraunkorra eskatzea eta YA genozidioarekin amaitzea." ■





# Estatu Batuetako unibertsitateetako **ERRESISTENTZIAK**

AEBn, Gazako gerraren kontrako protestak hirurogei unibertsitateetik gora zabaldu dira dagoeneko. Bi milatik gora dira atxilotuak, hortaz, Unibertsitateetako erresistentziak protesta egiteko beste arrazoi bat ere aurkitu du, poliziaren errepresioan eta adierazpen-askatasunaren eztabaida ere azaleratuz. Mugimendu horrek Joe Biden AEBko presidentearen gaineko presioa areagotu du, Israel eta Benjamin Netanyahuren Gobernuari babesak kentzeko diezaien.



Estatu Batuetako unibertsitateek Gazako gerrak herrialde horretan sortzen duen tentsioaren islarik onena bihurtu dira. "Palestina askea" edo "Gelditu genozidioa" bezalako pankartekin, campusak hartu dituzte Israelek Gazan egindako erasoaldi militarra salatzen.

Era berean, Estatu Batuek beren aliatu tradizionalarekin duten konplizitateak jotzen dutenaren aurka ere egiten dute, eta harreman horri etekina ateratzen diotenei boikota egiteko deia egiten diete. Protes-tarik handienetako batzuk ikastegi ospetsuetan gertatzen ari dira, hala nola Columbiako -, Kalifornian, Texasen eta Harvarden, besteak beste.

## Zer eskatzen dute eta zergatik egiten dute protesta?

Nolabait, ikasleek islatzen dute Estatu Batuetako gizartearen banaketa gero eta nabarmenagoa, manifestazio jendetsuen bidez su-etena eskatzen ari dira Gazan eta askatasuna herri palestinarrarentzat.

Baina, era berean, beraien ikasketa-zentroek Israelekin dituzten lotura ekonomikoak desegitea eskatzen ari dira, Israelgo enpresetan izan ditzaketan ekintzak salatuz eta herrialde horrekiko edozein harreman finantzario bertan behera uztea exijituz.

Oro har, ikasleek diote Israelen negozioak egiten dituzten enpresak, edo Israelgo erakundeekin harremana dituztenak, Gazako gerraren "konplizeak" direla. Horregatik guztiagatik, Israelgo ikaskuntza-erakundeekiko lotura akademikoak mozteko eskatzen ari dira manifestariak.

### Zergatik konparatzen dira 60ko hamarkadako Vietnamgo gerraren aldeko protestekin?

Estatu Batuetako unibertsitate-aktibismoaren historia luzea da. Gaur egun bizi den egoera aipatzen dutenen artean, gero eta gehiago gogoratzen da 60ko hamarkadaren erdialdean gertatu zenaz, ikasleen manifestazioek ere eszena publiko nazionala bereganatu zutenean. Vietnamgo gerraren (1955 – 1975) aurkako protestak izan ziren, inoizko odoltsuenetakoa, 2,5 milioi hildako baino gehiagorekin. Garai hartan, Vietnamgo herriak jasandako ankerkeria larrien aurrean, AEBetako iritzi publikoa izutzen hasi zen. Irudi basatiek herritarrak hunkitu zituzten eta pixkanaka demokraziaren aldeko gerra egiten ari zela zioen argudio ofiziala desegin zuten.

Horrela, protesta gogorak hasi ziren, horietako asko unibertsitateetan. 1968an, esaterako, ehunka ikasleek boikot masiboa egin zuten beren eskoletan, gerraren aurkako jarrera agerian uzteko. Istilu larriak eta poliziarekin liskar gogorak ere izan ziren. Gainera, unibertsitateko lau ikasle hil ziren Ohioko estatuan Guardia Nazionalaren tiroen ondorioz, eta horrek egoera okertu zuen eta ikasleen greba masiboa eragin zuen, ehunka ikastetxeren itxierarekin batera.



Proporzioak gorde arren, aditu askorentzat paralelismo nabarmenak daude egungo egoeraren eta gertaera historiko horren artean. Columbiako Unibertsitatean gertatu diren atxiloketak, adibidez, Vietnamgo gerraren ondorengo lehen masiboak izan dira. "Ikasleak Gazagatik protestatzen ari dira, bere garaian Vietnamen alde protesta egin zutenek egin zuten bezala.

Bitartean, europako zenbait unibertsitateetan ere mobilizatzen ari dira, "Palestinaren alde gaude" aldarrikatuz eta Ameriketako Estatu Batuetako campusetan egiten ari diren mugimendu geldiezinari elkartzuna adieraziz. ■

# Free Free Palestine! Boikot Israel!





# Proiektu berriak



Aurten bi proiektu berri jarri ditugu martxan, eta Saharako eskolekin bat egiten duen kanpaina bat ere abiatu dugu.

**"Zenbaitetan, adreiluzko harresi handietan, zirrikitu txikienetan, landare txikiek loreak ateratzea lortzen dute."**

Munduko botere nagusiek, ekonomiaren geopolitikari erantzunez, hainbat herrialde zapaldu, ustiatu eta alboratzen dituzte. Baina egoera zailenetan ere, komunitateak antolatzen dira eta sareak sortu haien bizitzak hobetzeko ekimenak sortuz, harrien artean landare txikiek nola.

Eilastasuna funtsa nazioarteko elkartasunean oinarritzen da, eta helburua herrialde hauek aurrera atera nahi dituzten, eta hezkuntzarekin harremana duten proiektu txiki horiek bidelagun izatea da. Proiektu bakoizarekin dugun hartu eman hau zazpi urte iraun dezake gehienez. 2024. urtean bi proiektu berrien bidelagun izateko aukera genuenez, martxoaren 14an ospatu genuen ezohiko asanbladan proiektu berrien eskaerak aztertu genituen.

Alde batetik, El Salvadorreko landa-komunitateko ikasle gazteak laguntzeko helburua duen "Unibertsitate-Etxea" proiektua dugu. CRIPDES elkarteak eramaten du ekimen hau aurrera. El Salvadorren goimailako hezkuntza formala hirigune nagusietan zentralizatuta dago eta kostu handia du landa-eremuko

baldintza ekonomiko eskasak dituzten familientzat. Egoera horrek karrera akademikoa lortu nahi duten gazteei eragiten die: unibertsitateko kuotak, bidaiak, material didaktikoak eta egoitza ordaintzeko zailtasunak baitituzte. Proiektu honekin komunitate desberdinetako gazteei aukera ematen zaie goi eta erdi mailako ikasketak egiteko eta beraien formazioa osatzeko. Honekin landa-komunitate osoak onura argiak jasotzen ditu, gazte horiek beraien lanbideetan jarraituko dezaketelako komunitatearen alde lan eginez.



Bestetik, Peruko proiektua dago, Chiclayo eta Ferreñafeko emakumeen Biobaratze komunitarioen sarea indartzea helburu duena. Abandonatuta zeuden erakargarritasun gutxiko eremuak garbitu, eta biobaratzeak sortu dituzte. Elikadura-subiranotasunari eutsi nahi diote, baliabideak handitzeko eta familiak elikagai osasuntsuekin elikatzeko. Proiektu hau emakume talde batek eramaten du aurrera, eta elikagai-justiziaren aldeko apustu gisa ulertu behar da, baita bertako komunitateko emakumeen ahaldunderako estrategia bezala ere.

## Peruko emakumeen biobaratzeko emakume sarearen bisita izan dugu





# Proiektu berriak



Azkenik, Saharekin bat egiten duen kanpaina aurkeztu zen asanblada honetan. Saharar Hezkuntzako Sindikatuarekin (UTEFS) elkartasun bide bat zabalitzen ari gara, eta horretarako gure afiliatuen partaidetzari dei egin genuen.

Ekimen honek Euskal Herriko irakasleak Sahara errefuxiatuen kanpamenduetako irakasleekin harremanetan jartzea du helburu, eta ildo berean, hemengo irakasleak hango irakasleekin, Haur, Lehen eta Derrigo-

rrezko Bigarren Hezkuntzan zein Batxilergoan. Modu honetan, haien esperientziaz hitz egin eta materialak partekatu ahal izango ditugu. Horrez gain, ikasleak elkarrekin harremanetan jartzea ere garrantzitsua da, elkarren ezagutzak irekitzen baitizkio bideak lan-kidetzari. Harremanetarako bide ezberdinak erabiliko dira; bai internet, bai korreo arrunta. Saharar irakasleen artean proposamena zabaldu dute jadanik eta jasotako erantzuna oso baikorra izan da.

2024-2025 ikasturtean elkartasun bide honetan parte hartu nahiko bazenu, jar zaitez **STEILAS** sindikatuarekin harremanetan, telefonoz edo emailez. Loratzen ari diren proiektu hauei babesa eta indarra emango diegu. ■

**Animatu zaitez parte hartzera!**





# HL

## Hitz eta Lapitz



STEILAS sindikatua  
@STEILAS\_

Azken urteotako azpiko eta bidean jarritako oztopoen gainetik, Lezkairuko ikastetxean D eredu irekiko da! Pausoz pauso, bidea eginez, Aurrera D eredu! Zorionak bihotzez bertako familia euskaltzailei, lortu dugul!  
\*#DereduaAurrera\*



STEILAS sindikatua  
@STEILAS\_

Bilbon ere manifestazioa martxan! Borrokatu denon eskubidern alde!!!  
#MaiatzarenLehena #Maiatzak1



STEILAS sindikatua  
@STEILAS\_

STEILASeko LGBTIQ+ taldeak antolatutako formakuntza jaso dugu liberatu, afiliatu eta lankideok, @Hiruki\_Larroxakren eskutik: pornografia hezkuntzan.

Horrez gain, argitaratu berri dituzten unitate didaktikoak ere aurkeztu dizkigute: Armairutik plazara!



STEILAS sindikatua  
@STEILAS\_

Kaleetan, ikastetxeetan, unibertsitateetan eta behar den lekuetan borrokatzen jarraituko dugu euskal eskola publikoak gure sistemaren ardatz egituratzailea izan arte. Berau baita, inklusioa eta euskalduntzea bermatzen duen bakarra.

Iritzia



STEILAS sindikatua  
@STEILAS\_

HEZKUNTZA LANGILEOK BOIKOT ISRAELI!

Gaur, Nakharen 76.urteurrenean, mobilizazioak egin ditugu Hego Euskal Herriko hiriburuetan, herri palestinarrari elkartzasuna adieraziz. Palestina askatzeko, israeli boikot!



STEILAS sindikatua  
@STEILAS\_

Adi !!

Asteazkenean Haurreskolak Partzuergoko mahai negoziatzailean bi akordio sinatu genituen, lanpostu estrukturalak sortu eta zerrenda handitze aldera.

#Steilasberri honetan dituzue infoa eta akordioak

STEILAS sindikatua  
@STEILAS\_

Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen hitzarmenak 20 URTE!

NAHIKOA DA !!



STEILAS sindikatua  
@STEILAS\_

Gaur, @Eskola\_Publikoa Topagunea osatzen dugun tokiko plataforma eta eragileak elkartu egin gara, Eskola Publikoaren alde topa egin eta gure eskaerak aldarrikatzeko. Egin dezagun topa!






STELAS sindikatua  
@STELAS\_

"Udaberrian ere kantatuko dugu zozook. Bizi gareino kantatuko dugu; bizi deino, herri honek euskara dantzatuko du. Esna dadila piztia, zeren kea usaindu duelako da, eta guk badakigu sua egiten.

Biba #Korrika, harro Herrial!"

Baionako kaleetatik ere eraman dugu lekukoa! 🇪🇺 🇩🇪



STELAS sindikatua  
@STELAS\_

Errektoretza-taldeak eta Hezkuntza Sailak ez dute inolako borondateirik EHUko irakasle ordezkoen egoera konpontzeko 🇪🇺 Borondate ezaren ondorioz, sindikatuok borrokan jarraitzen dugu eta bide judiziala ireki dugu 🇪🇺



stellas.eus  
Errektoretza-taldeak eta Hezkuntza Sailak ez dute inolako b Borondate ezaren ondorioz, sindikatuok borrokan jarraitzen dugu eta bide judiziala ireki dugu. LABek hasitako eta ...

STELAS sindikatua  
@STELAS\_

Euskaldunon #HarrotzeAstea martxan da! 🇪🇺 @EHEbizi 🇪🇺

"Harrotasunez eta kolektiboki, esan dezagun euskaldunak garaile eta gure herrian euskaraz bizitzeko eskubide osoa dugula!"

🇪🇺 Euskaraz bizitzeko, hezkuntza euskalduna behingoz! Gora Euskal Herri Euskalduna! #EuskarazTaHarro



STELAS sindikatua  
@STELAS\_

🇪🇺 Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Egunaren bezperetan, salatu dugu langileok gure osasuna jokoan ipintzen dugula, bizitza duin baterako diru sarrera nahikorik bermatzen ez duten enplegutuan.

Patronalak aurrean izango gaitu!



Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna: langileon babesleku izaten jarra...

STELAS sindikatua  
@STELAS\_

🇪🇺 Kontseilu Nazionala egin dugu gaur Bilbon. @emagin\_emaginlekin landutako Bizigarritasun Plan Feminista aurkeztu eta onartzeaz gain, Amelia Barquin-en hitzaldia jaso eta gogoeta egiteko aukera izan dugu: "Etorikinen seme-alabak, euskara, eskola".



2023-2024 ikasturteko bigarren Kontseilu Nazionala egin dugu

STELAS sindikatua  
@STELAS\_

Atzo eta gaur artean epaitu dituzte Parisen Txetx Etxegoien eta Beatrice Molle Bakearen Artisauak, Luhusoko operazioagatik.

Beraien errugabetasuna exijitzeko mobilizazioak egin ditugu gaur Euskal Herriko lurralde guztietan. #KonponbideOsoaOrain!



STELAS sindikatua  
@STELAS\_

Garaia da erakusteko ez garaile ezaxola Palestinako haurtzaroaren oinazaren aurrean, ez gaude prest gure haurrek ankerkeria hau normaltasunez onar dezaten.

Datozen belaunaldiak jakin dezaten historiako alderdi zuzena aukeratu genuela. Palestinako umeak gureak ere badira!



STELAS sindikatua  
@STELAS\_

STES intersindikaleko Emakumeen organizazioak antolatutako 24. Jardunaldi feministetan gaude: "Feminismoak mugak hausten". Emakumeon sindikalgitzan ikusgarritasun eta ahalduzterako bideak aztertu ditugu.

Parte hartzeko gonbidapena eskertu nahi diegu. Gora borroka feministal!







[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

### **Araba**

Manuel Iradier 40 • 01005 **Gasteiz**  
☎ 945 141 104  
araba@steilas.eus

### **Bizkaia**

Jose Maria Eskuza 1, 1. esk. • 48013 **Bilbo**  
☎ 944 100 298  
bizkaia@steilas.eus

### **Gipuzkoa**

Gaztela kalea 16-18, Behea • 20015 **Donostia**  
☎ 943 466 000  
gipuzkoa@steilas.eus

### **Nafarroa**

Joakin Beuntza 4-6, behea • 31014 **Iruñea**  
☎ 948 212 355  
nafarroa@steilas.eus



Irakaskuntzako aldizkaria